



Eguna hasteko olerkiak

Miren Billelabeitia

Upaingo, 53

978-84-9172-454-4

2025 - 168 or. - 13 x 19 cm

17 €

Literatura eta poesia eguneroko bizitzaren arnas izan daitezke. Poesiak, entzundako irakurketa ozen nareak, lasaitasunerako eta burua kokatzeko abagunea eskaini diezaguke. Gizakiaren mundua ez baita soilik «bizi» dugunaren bitartez eraikitzen, baizik eta, gero eta indar handiagoz, irakurtzen dugunari esker. «Ez da olerkia adinako fragatarik», dio Miren Billelabeitiak. Irakurketaren emozioak, eta berarekin batera jakin minaren txinpartak arreta den behatxulora garamatza. Poesia irakurtzen hasteko errituak egiten du egun bakoitza besteetatik berezia, une bakoitza bakan. Lan honen muina irakurketa da, batez ere XX. eta XXI. mendeetako poesiaren irakurketa ozena, gazte eta nerabeen artean poesiaren irakurketari bultzada eman nahian.



MIREN BILLELABEITIA
(Mungia, 1960)

Euskal Filologian Lizentziatua, Literatura Unibertsala eta Euskara eta Literatura irakasle izan da Mungiako Institutuan.

Irakurketak sorrarazi dion atseginak eta gazteengan literaturarekiko jakin-mina eragiteko gogoak bultzatu dute irakurketari buruzko pedagogian sakontzera eta literaturarekiko zaletasuna pizteko gogoetara. Bide honetan hitzaldiak eta formazio jarduerak eman ditu Berritzeguneetan, ikastetxeetan eta udako ikastaroetan literaturaren irakaskuntzaz eta solasaldi literarioen bidezko irakurketaren sustapenaz.

Argitalpenen artean aipa daitezke: *Euskal literaturaren historia* (2003), *Lauaxeta. Oihartzunak* (2008), Esteban Urkiaga *Lauaxeta* euskal poetaren antologia, eta irakurketa proiektu baten ondorioz, Mungia BHI institutuko ikasleekin batera *Aitita-amamen guda zibila* (2019).

2023an Euskadi Saria irabazi zuen *Norberak maite duena* liburuarekin (Pamiela, 2022). Itzulpena 2025ean Consonni argitaletxeak atera du *Lo que una ama* izenburuaz.

Usoa Fullaondo eta Zuhar Iruretagoiena, Gure Arte Saria 2025, artisten lana laguntzeko poemak sortu ditu *Alto ánimo. Larga Alegría* liburuan (2025).

